

Ebete hizkuntza zerbitzuen  
**Irakasleentzako ikastaroak  
2021–2022 ikasturterako**

***Irale bidez egiteko aukera***

H9	<i><b>Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako.</b></i>
H10	<i><b>Hizkuntza–sozializazioa: Euskararekiko jarreretan eta hizkuntza–ohituretan eragiteko oinarriak eta jarduerak.</b></i>

15	<i><b>Hizkuntza–Trataera Integrala garatzen. Arloetan/proiektuetan hizkuntzaren lanketa ekintza komunikatiboen bidez.</b></i>
16	<i><b>Hizkuntza Trataera Integrala garatzen. Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntza–arloan arteko elkarlana eta beste-arloekin lotura.</b></i>

*H9, H10, 15 eta 16: Iraleko ikastaroetako kodeak*

## ***Aurkezpena***

*Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik* haur eta gazteen euskararen erabileran eta hizkuntza-ohituretan eragiteko bideak eta tresnak lantzen ditugu. Horien barruan garrantzia handia dute irakasleen lanari begira garatutakoek.

Azken urteetan hainbat eta hainbat ikastetxetan gabiltza irakasleen formazioa lantzen. 2020-2021 ikasturtean, adibidez, 30 ikastetxe baino gehiagotan egin ditugu ikastaroak eta saio puntualak.

Ikastaroek ikuspegi praktikoa dute, eta eguneroko lanerako tresnak proposatzeko ahalegina egiten dugu. Hori dela eta, urtez urte tresnak eta adibide berriak lantzen eta eskaintzen jarraitzen dugu.

Gure ohiko gai nagusiak euskararen hauek izaten dira: erabilera sustatzeko estrategiak, ahozko gaitasuna lantzeko jarduerak, jarrerak lantzeko oinarriak eta dinamika eta gurasoen sentsibilizaziora begirako mezuak eta tresnak. Azken urteetan hizkuntza trataera integralari ere heldu diogu. Arlo horretan ere lortu dugu izaera praktikoa ematea ikastaroari eta egiten den lanketa ikasgelan erabiltzera begirakoa izatea.

Zuen ikastetxean gai hauen inguruko formazioa egin nahi baduzue, hainbat aukera dituzue. Ondorengo orrietan edukiei eta antolaketari dagozkion aukera ezberdinak aurkezten dira. Baina hoberena zuzenean gurekin harremanetan jartzea da. **Gurekin harremanetan jartzen bazarete, aukera ezberdinen ezaugarriak azalduko dizkizuegu eta zuentzat egokiena ikusten duzuen aukeratu ahal izango duzue.**

Ebetetik azken urteetan landu ditugun eduki gehienak ondoko  
gune honetan aurkitu ditzakezue:  
[www.ebete.eus/hezitzaile-berritsuak](http://www.ebete.eus/hezitzaile-berritsuak)

## ***Aukerak***

Hainbat aukera daude iraupena eta ezaugarriei dagokionez:

-**Aurkezpen saioa:** bi orduko saio bakarra. Oinarri nagusienak aurkezten dira eta hainbat adibide eta tresna ikusten dira, baina edukietan sakondu gabe.

-**Jarraipen saio puntualak:** aurretik ikastaroa egin izan duten ikastetxeetarako aproposa. Urtean zehar saio bat edo bi izan daitezke, lehendik landutakoa erreparatzeko, urrats berriak adosteko, edota adibide eta tresna berriak aurkezteko egiten dira.

-**Ikastaroak:** bai oinarrizkoak baita garapena ere. Iraupena eta ezaugarriak ikastetxeko arduradunekin adosten dira.

<b>Ikastaroak Irale bidez egiteko urratsak</b>	<p>Ikastaroak eskatzeko epea: Apirilaren 27tik maiatzaren 11era.</p> <p>Iraleko deialdian agertzen diren urratsak jarraituz egin behar da eskaria.</p> <p>Ebetetik H9, H10, I5 eta I6 ikastaroak eskainiko ditugu.</p> <p>Eskaria egiten baduzue, jarri gurekin harremanetan hori adieraziz eta antolaketara begirako urratsak emango ditugu.</p>
<b>Ikastaroak edo saioak Iralez kanpo egiteko urratsak</b>	<p>Landu nahi dituzuen edukien eta egin nahi dituzuen saio kopuruaren arabera proposamen zehatz bat aurkeztuko dizuegu.</p> <p>Aurrekontu bat bidaliko dizuegu.</p> <p>Eskola kontzertatu eta Ikastolen kasuan <i>Fundae</i> bidez egiteko aukera ere baduzu.</p>

## ***Gaiak***

# **Euskararen erabilera indartzea: Ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako**

## **Helburuak**

Ikasgelan eta ikasgelaz kanpo irakasleen bidez ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak aurkeztea, eta horiek aurrera eramateko prozedurak aztertzea.

## **Eduki nagusiak**

- Hizkuntzen irakaskuntzari eta euskararen erabilerari dagokionez eskolaren norabidea, mugak eta aukerak
- Oinarrizko prozedura: irakasle guztiek ikasleen euskararen erabilerarekiko hartu beharreko jarrera
- Jarduerak egokitzea: hizkuntzari eta ahozkoari saioetan lekua egiteko prozedura, adibideak eta horiek plangintzatzeko moduak.
- Ahozko jarduera laburrak, Elkarrizketa itxiak eta Hizkuntza-jolasak: ahozkoa egiturak lantzeko dinamikak eta horiek programazioan txertatzeko proposamenak.
- Patio ordura begirako jarduerak: oinarriak eta proposamenak. Irakasleek dinamizatutako edota ikasleek dinamizatutako jarduerak.
- Osagarriak: Auspoa programako euskara indartze saioetarako proposamenak eta edukiak

Ikastaroko edukiak ikastetxearen eta irakasleen ezaugarri edo beharretara egokitzen dira. Batetik, etapa hartzen da kontuan: edukiak, adibideak eta proposamenak Haur Hezkuntzara, Lehen Hezkuntzara edo Bigarre Hezkuntzara egokitzen dira. Bestetik, testuinguru soziolinguitikoa ere kontuan hartzen da eta horren arabera arlo batzuei edo besteei ematen zaie garrantzia eta denbora handiagoa.

# Hizkuntza–sozializazioa: Euskararekiko jarreretan eta hizkuntza– ohituretan eragiteko oinarriak eta jarduerak

## Helburuak

Ikasleen euskararekiko jarreretan eta hizkuntza–ohituretan eragitera begira, jarrera eta jokabideen oinarrian zer dagoen ikustea, lanketa egokia egiteko beharrezkoa zer den aztertzea, eta hainbat proposamen zehatz aurkeztea.

## Eduki nagusiak

- Hizkuntza–sozializazioa: jarreraren lanketa eta hizkuntza–ohituren gaia hizkuntza–sozializazioaren eremuan kokatzea.
- Hizkuntza–ohituretan eragiten duten faktoreak: aztertzea eta ikasleek hizkuntzekin nolako harremana duten ikustea.
- Jarreretan eragiteko jarduerak: testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz ikastetxeetan aurrera eraman daitezkeen jarduerak ikustea eta irakasleek eskolan erabili ahal izateko prestatzea.
- Hizkuntza–ohituretan edo hizkuntza–arauetan eragiteko jarduerak: *Ahobizien ezaugarrietako dinamika egokituak* aurkeztea eta ikastetxeetan aurrera eramateko kontuan hartu beharrekoak lantzea.
- *Gurasoak eta eskola norabide berean*: familiei irakasleen bidez guraso bileretan emateko mezuak, familien kezken erantzunak eta eskolaren norabide berean aritu daitezen proposamenak. Horiek eskolako plangintzan txertatzeko bideak ikustea.
- Ikasleak hizkuntza–ohituretan eragile izan daitezen oinarriak eta proposamenak: ikasleen euskara batzordeei begirako oinarriak eta dinamizaziora begirako proposamenak.
- Testuinguruan eragiteko proposamenak: eskola orduz kanpoko jardueretako antolatzaile eta hezitzaileengan eragitera begirako oinarriak eta tresnak.

Ikastaroko edukiak ikastetxearen eta irakasleen ezaugarri edo beharretara egokitzen dira. Batetik, etapa hartzen da kontuan: edukiak, adibideak eta proposamenak Haur Hezkuntzara, Lehen Hezkuntzara edo Bigarren Hezkuntzara egokitzen dira. Bestetik, testuinguru soziolinguistikoa ere kontuan hartzen da eta horren arabera arlo batzuei edo besteei ematen zaie garrantzia eta denbora handiagoa.

# Hizkuntza trataera integrala garatzen: Arloetan/proiektuetan hizkuntzaren lanketa ekintza komunikatiboen bidez.

## Helburuak

Hizkuntzen Trataera Integrala garatzera begira, arloetan/proiektuetan ekintza komunikatiboen bidez zer landuko den adostea eta ekintza komunikatibo horietarako behar diren tresnak prestatzea.

## Eduki nagusiak

- Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua. Bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko lotura.
- Oinarriak: Ikuspegi komunikatiboa
- Ekintza komunikatiboak lantzea ikastetxeko testu-generoen mapa eta irteera profilak kontuan hartuz:
  - Konpetentziak formulatzea
  - Arazo-egoerak zehaztea
  - Ekintza komunikatiboak zehaztea
  - Plan orokorrak eta azken produktu ereduak garatzea
  - Azken produktura iristeko prozesua eta trebatzea: zer den erakusgarria, testu eredugarriak eta trebatze-jarduerak.
  - Ebaluazio errubrikak
- Trebatzea nola egingo den zehaztea: zer landuko den

*Hizkuntza Trataera Integrala* garatzera begirako ikastaroek ere izaera praktikoa dute: oinarri batzuetatik abiatzen da baina helburua ikasleekin aurrera eramateko jarduerak garatzea da. Horretarako, ikastetxeen abiapuntua zein den kontuan hartzen da (testu-generoen mapa osatua duen edota irteera profilen inguruko hausnarketa egina ote duen) eta metodologia ere kontuan hartzen da (testu liburuekin edo proiektuen bidez lan egiten den adibidez). Hortik abiatuz eta irakasleekin elkarlanean, edukiak eta tresnak garatzen dira.

# Hizkuntza Trataera Integrala garatzen: Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntza- arloan arteko elkarlana eta beste-arloekin lotura.

## Helburuak

Hizkuntzen Trataera Integrala garatzera begira, koordinatuta landuko diren testu-generoak adostea, eta hizkuntzetan horien lanketa egiteko modua eta beste arloekin lotzeko modua garatzea.

## Eduki nagusiak

- Abiapuntua: Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua. Bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko lotura.
- Oinarriak: Heziberri, Europar Markoa eta Irteera profilak
- Testu-generoen mapa: hizkuntzen artean koordinatuta zein testu-genero eta zein ikasmailetan landuko diren zehaztea
- Koordinatuta landuko diren testu-generoen lanketa egitea: bakoitzaren ezaugarriak (antzekotasunak eta ezberdintasuna), hizkuntzen arteko transferentziak eta erreferentziak, eta abar.
- Beste arloekin lotura: arloen ezaugarriak kontuan hartuz, zein testu-genero landu daitezkeen zehaztea, eta arloetan zer eta nola landu zehaztea: hizkuntzaren lanketa bistaratzea, ulermen estrategiak, errubrikak eta abar.

*Hizkuntza Trataera Integrala* garatzera begirako ikastaroen ere izaera praktikoa dute: oinarri batzuetatik abiatzen da baina helburua ikasleekin aurrera eramateko jarduerak garatzea da. Horretarako, ikastetxeen abiapuntua zein den kontuan hartzen da (testu-generoen mapa osatua duen edota irteera profilen inguruko hausnarketa egina ote duen) eta metodologia ere kontuan hartzen da (testu liburuekin edo proiektuen bidez lan egiten den adibidez). Hortik abiatuz eta irakasleekin elkarlanean, edukiak eta tresnak garatzen dira.

## Ebete hizkuntza-zerbitzuen eskaintza osoaren laburpen taula

Eduki eta baliabide berriak sortzen jarraitzen dugu Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik. Azken bi urteetan **arrakasta eta emaitza oso onak ematen ari dira**, adibidez, *Mintzapraktikak online LHko ikasleentzat* eta *Gazte Berritsuak DBHko ikasleentzat euskara indartze saio ludikoak*. Ezaugarri eta eduki aldetik programa berritzaileak dira biak ere.

Ondorengo taula Ebeteren eskaintza osoaren laburpen bat aurkezten dizuegu. Arloren baten inguruan interesa izango bazenute, jarri gurekin harremanetan eta emango dizuegu informazio zehatza.

<b>Gurasoei begirako eskaintza</b>	Hitzaldi edo sentsibilizazio saioak
	Lantegi edo saio praktikoak
	Lantegi praktikoak online
	Aholkularitza eta dinamizazioa
<b>Eskola orduz kanpoko jardueri begirako eskaintza</b>	Kirol jardueri eta eskola orduz kanpoko jardueri begirako aholkularitza
	Formazio saioak hezitzaile eta entrenatzaileentzat: oinarrizkoak eta praktikoak
<b>Haurrei eta nerabeei begirako eskaintza</b>	Euskara indartze programak: Mintzapraktikak online, Gazte Berritsuak eta Aisialdi programak
	Hizkuntza-ohiturei begirako dinamizazioa eta aholkularitza: Ahobizi dinamikak eta Gazte eragileen batzordeak
<b>Irakaskuntzara begirako eskaintza</b>	Irakasleentzako ikastaroak. Gaiak: euskararen erabilera sustatzea, ahozko gaitasuna lantzea, euskararekiko jarrerak lantzea, Hizkuntza Trataera Integralera hurbilpena, eta familiak eta eskola norabide berean.
	Ikastetxeentzako aholkularitza: Hizkuntza proiektuen garapena
<b>Udal eta erakundeei begirako aholkularitza</b>	Eragileen sarea osatzen: hizkuntza-sozializazioan eragitera begirako aholkularitza